


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2004KO AZAROA

Euskal AEko eraikuntzako kostuek % 0,2 behera egin zuten, 2004ko azaroan

Azken hamabi hilabeteen (2004ko azaroa, 2003ko azaroaren gainean), eraikuntzaren kostuak % 7,3 handitu dira.

2004ko azaroan, aurreko hilaren aldean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea % 0,2 jaitsi zen, Eustatek landutako datuen arabera. Azaroko urte arteko tasa % 7,3koa da; % 3,8 hazi da lan-eskuaren kostua, eta % 9,0 lehengaien kostua.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1996-2004



(*) Gehikuntza azaroko urte artekoa da.

Source: EUSTAT

Lehengaien kostuak % 0,3 jaitsi dira aurreko hilaren aldean: *eraikinak* azpisektorekoak % 0,3 beheratu dira, eta *obra zibila* azpisektorekoak % 0,6. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran, kontsumitzen dituzten lehengaei dagokienez, ikusten da biek nahiko bide homogeenak egin dituztela: *eraikuntza* eta *obra zibila* azpisektoreetan, lehengaien kostuak % 9,2 eta % 8,3 igo dira, hurrenez hurren.

Azaroan, lehengai hauek izan dira euren prezioetan hazkunderik handienak izan dituztenak: *energia elektrikoa* (% 4,9), *bulegoko materiala* (% 1,1), *beira* (% 0,7), *metalezko hodiak* (% 0,6) eta *karea, igeltsua eta eskaiola* (% 0,4). Aitzitik, prezioetan murrizketak izan dituzte *petroliotik eratorriak* (% -8,0), *asfaltozko produktuak* (% -8,0), *olioak eta koipeak* (% -1,6) eta *burdina eta altzairua* (% -0,7) lehengaiak, besteak beste.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan dira inflazio-tasarik handienekoak: *metalezko hodiak* (% 43,1), *burdina eta altzairua* (% 39,1), *asfaltozko produktuak* (% 24,8), *petroliotik eratorriak* (% 18,2) eta *zementutik eratorritako gaiak* (% 9,8), batik bat. Bestalde, murrizketak izan dituzte urte arteko prezioetan (2004ko azarokoak, 2003ko azarokoekin alderatuta) lehengai hauek: *beira* (% -1,7), *bulegoko materiala* (% -1,0), *energia elektrikoa* (% -0,8) eta *zura eta kortxoa* (% -0,3) lehengaiek, alegia.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2004KO AZAROA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	115,3	-0,2	7,3	7,2	
ERAIKINAK	115,3	-0,2	7,5	7,4	
OBRA ZIBILA	115,5	-0,4	6,6	6,6	
LEHENGAIEN KOSTUA	113,1	-0,3	9,0	8,8	
ERAIKINAK	113,1	-0,3	9,2	9,0	
OBRA ZIBILA	112,8	-0,6	8,3	8,3	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	120,6	0,0	3,8	3,8	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 017 506. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp